

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI ERROMERIA

Erromeria bihar, Jeiki Hadirekin

Bihar egingo du San Joan Konpartsak urteko aurreneko erromeria. Eguraldi txarra iragarrita dagoela-eta, Atsegindegin izango da, arratsaldeko 18:30etan hasita. Oraingo honetan ere, Jeiki Hadi taldeak alaituko du arratsaldea. ||

HERNANI-ASTIGARRAGA KORRIKA

Apirilaren 13an pasako da Korrika, Urumeatik

Apirilaren 4an hasiko da 21. Korrika, aurtun, Garesetik (Nafarroa); 2.560 kilometroko ibilbidea osatuta, apirilaren 21ean iritsiko da Gasteizera. Hernani eta Astigarragatik ere pasako da.

KORRIKA urtea da aurtengoa; 21. edizioa burutuko du AEK euskaltegiak, bi urtean behin egiten duen moduan. Aurtun, apirilaren 4an hasiko da, Garesen (Nafarroa), arratsaldeko

17:00ak aldera. Eta apirilaren 21ean emango zaio bukaera, Gasteizen, eguerdiko 12:30etarako.

Astigarratik eta hernaniarrek ere, aukera izango dute

parte hartzeko, apirilaren 13an. Astigarragatik pasako da lehenengo, goizeko 01:02etan eta Hernanitik gero, goizeko 01:04etan; biak ostiraletik larunbaterako gauean.

2.560 kilometroko ibilbidea
Klika lelopean, hamaika eguneko bidaia egingo du aurtengo Korrikak, 2.560 kilometro izango dira Euskal Herriko zazpi herrialdetatik. ||

HERNANI GAZTETXEA

Elkartasun kontzertuak, gaur

Hernaniko gazte mugimenduko bi gazte izango duten epaiketaren gastuak ordaintzeko, elkartasun kontzertuak antolatu dituzte Kontrakantxak eta Urrunegi taldeak, gaztetxean. Lau talde arituko dira, gaueko 21:30etan hasita: Orreaga 778, Kaleko Urdangak eta Perlata, eta ondoren, DJ Dxepe. Sarrerak han bertan erosi ahal izango dira, 5 euroan. ||

HERNANI BIDEZ BIDE ZERBITZUA

Ibilgailu berria, Bidez Bide zerbitzuak

Hernani, Urnieta eta Andoaingo landa eremuetan bizi diren 65 urtetik gorakoei edo mugikortasun arazoak dituztenei zuzendutako garraio zerbitzuak hamar urte bete eta aurrerapausoa eman du.

BIDEZ Bide programak hamar urte bete ditu, eta hori ospatzeko, ibilgailu berria erosi du. Programa horren bitartez, garraio zerbitzua eskaintzen zaie Hernani, Urnieta eta Andoaingo landa eremuetan bizi diren 65 urtetik gorakoei eta mugikortasun arazoak dituztenei, Behemendi elkar-tearen bitartez.

Zerbitzuarekin jarraitzeko, ibilgailu berria aurkeztu zuten atzo Urnietan, eta bertan izan ziren Behemendiko Juan Cruz Alberdi; ibilgailuaren gidaria, Begoña Berastegi; Xabier Lertxundi, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialen zinegotzia; Mikel Pagola, Urnietako alkatea; eta Ana Carrere, Andoaingo alkatea.

45.000 euroko kostua

Ibilgailu berriak 45.000 euroko kostua izan du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailak ordaindu duena. 7-8 lagunentz

tzat lekua dauka eta Alberdik azaldu duenez, «egokিতa dago aulki gurgildunentzat».

Zerbitzuaren garrantzia nabarmenduta, Udalek

Hiru Udalek ahalbidetzen dute zerbitzua aurrera eramatea: «eskertu behar diegu Udalei urtero, hitzarmenaren bidez, txoferraren gastuak eta zerbitzuarenak ordaintzeagatik», adierazi zuen Alberdik.

Udalek, haien aldetik, zerbitzuaren garrantzia nabarmendu zuten: «zerbitzua egokitu egiten zaie beharrei», onartu zuen Mikel Pagola Urnietako alkatea.

Xabier Lertxundi Hernaniko Zerbitzu Sozialen zinegotziak erakundeen arteko elkarlana nabarmendu zuen: «hiru herrien artean lan egiteak halako emaitzak ematen ditu; bide horretan jarraitu behar dugu».

Ana Carrere Andoaingo alkatea, aldiz, oraindik erabil-



Carrere, Lertxundi, Pagola, Alberdi eta Berastegi atzo, Urnietan.

tzen ez duenari, erabiltzeko gonbitea luzatu zion.

«Eskerrak», baita ere, gidariari

Begoña Berastegi gidariaren lana ere goraiatu zuen Juan Cruz Alberdik: «gidari lanak baino, laguntzaile lanak egi-

ten ditu, erabiltzailea atendituta dago».

Eskerak, telefonoz

Astelehenetik ostiralera eskaintzen du zerbitzua Behemendi elkarteak, 08:00etatik 12:00etara, aurrez telefonoz deituta. ||

HERNANI PRESOKA

Manifestazioa eta azken agurra, gaur

Kalera Kalera ekimenak antolatuta, Juan Mari Maizkurrena Okendori azken agurra egingo zaio gaur, manifestazioan. Arratsaldeko 19:30etan abiatuko da Plazatik, eta Tilosetan bukatuko da. ||

GOIZUETA ESKU PILOTA

Bizkaia Frontoian gaur, Olaizola

Binakako Txapelketa jokatzeko ari da Aimar Olaizola Albusu-ekin batera, eta gaur jokatu dute final laurdenetako partida, Urrutikoetxea-Aretxabaleta bikotearen kontra. Iluntzeko 20:30etan hasita izanen da, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Tebistan ikusi nahi duenarentzat ere, izanen da aukera; 22:00etatik aurrera eskainiko baitute ETB1en. ||

HERNANI ZINEA

'Dantza', gaur

Gaur eskainiko dute asteburuko aurreneko pelikula. *Dantza* ikusi ahal izango da aurrenekoz Biterin, 22:00etan. ||

DORRONSORO
OKINDEGIA

Ogi egin berria
beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Amaia
arrandegia

Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta
izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

DOBERAK
DINAMIZATZAILEA
BEHAR DU
amatasun baja dela eta.

Bidali zure
Curriculum Vitae-a,
urtarrilaren 18ra arte:

dobera@dobera.eus

DO BE RA
EUSKARA
ELKARTEA

Dobera Euskara
Elkartea
Larramendi 11
behea
20.120
HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea hitzez zein idatziz.
- Ofimatika programak eta teknologia berriak menperatzea.
- Hizkuntza normalkuntzako lanetan eskarmentua: koordinazio eta kudeaketa, administrazioa, aisialdia, kultura...

BALORATUNO DA:

- Euskara elkarten ezagutza eta lan eskarmentua.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Iniziatiba izatea.
- Gida baimena eta kobesa.
- Dobera-Kronikako bazkide izatea.

ESKAINIKO ZAIO:

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Balintzak betetzen dituzteren artean probak egin ondoren bal aukeratu da

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA **GAUR** Eguraldiak hobera egingo du gaur, baina hotz giroak jarraitu egingo du. Lainoak egongo dira, baina ostarteak ere irekiko dira. Arratsaldetik aurrera, euria egin dezake. **Min.0° / Max.7°**

BIHAR Laino ugari izango dira eta euri pixka bat ere bai. Elur kota 1100-1300 metro inguruan egongo da. Tenperatura gora egingo du pixka bat. **Min.5° / Max.10°**

ASTIGARRAGA AZSTIGAZTE LEHIAKETA

'Bidegurutze' eta 'Pinantzak' gaur, sari potoloaren bila

Arratsaldeko 18:00etan izango da ekitaldia, udaletxean; bertan, lanen ahozko aurkezpena egin behar izango dute, eta sariak banatuko dira.

BUKAERARA iritsi da Astigarragako Udaleko gazteria sailak antolatutako Azstigazte lehiaketa; gaur egingo dute azkeneko ariketa bi finalistek: Bidegurutzek eta Pinantzak (ezizenak). Arratsaldeko 18:00-etan hasita izango da, Astigarragako udaletxeko areto nagusian.

Bi lan, finalean

Bi lan izango dira gaurko finalean: bata, Gaur iaz balitz Bi-

'Maitasuna eta laguntasuna' gaiaren inguruan egin behar izango dute lana gazteek.

degurutzerena (ezizena); eta bestea, Itsasoaren bestaldean Pinantzarena (ezizena).

Biek egindako lanen ahoz-

ko aurkezpenak egin beharko dituzte, eta ondoren, sari-banaketa egingo da.

'Maitasuna eta laguntasuna', oinarrian 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa da Azstigazte. Aurtengoan, maitasuna eta laguntasunaren inguruan egin behar izan dute lana gazteek, eta horietan onenak dira gaur sarituko direnak. ||

HERNANI ATLETISMOA



Txelu Del Sol hernanlarra brontzezko dominarekin.

Hirugarren postua, Txelu Del Solek

Pista estaliko Euskadiko Master Txapelketa jokatu zen urtarrilaren 5ean Donostiako belodromoan, eta bertan izan ziren CD Hernaniko bi atleta: Txelu Del Sol eta Xabier Barberena. Aurrenekoak, hirugarren postua lortu zuen M45 kategorian, 10:23,16 denbora eginda. Bigarrenak, aldiz, laugarren egin zuen M50 kategorian. Azken honek 10:55,67 denborarekin bukatu zuen ibilbidea. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Otsoak

Duela 8 zortzi urte ezagutu nuen Juan Mari Maizkurrena. Garai hartan alokairuko pisu baten bila genbiltzan eta berak bere baserriko atea, Okendo-eneakoak, ireki zizkigun. Orduan, baserriko lanari bizitza eskaini zion pertsona bat ezagutu nuen, baina bereziki, pertsona zintzoa, alai eta bera maitatzea errazten zuen izaera zuen. Baratzan pasatzen zituen orduak, sagarrak jasotzen, belarra moztzen... baina, batez ere, ardiez inguratuta ibiltzen zen. Denak ezagutzen zituen, banan-bana,

eta berak zioen bezala, gehiago fidatzen zen haiekin, pertsona askorekin baino.

Egun batean, otsoak agertu ziren eta Juan Mari eraman zuten. Bortizki torturatu zuten, epaitu egin zuten eta haien gordelekuan sartu zuten, Estatu espainiarraren hainbat gordelekutan. Eta bertan egon zen bakarrik, otsoek inguratuta, bere bizitzan inoiz ezagutu ez zuen etsai-giroan. Ondoren, ateratzen utzi zuten, baina dagoeneko berandu zen, mina egina zegoen. Beldurra bere gorputzean sartzea lortu zuten, antsietatea, mesfidan-

tza... Nola ez du gaixotasun sendagaitz bat garatuko? Nik beti esaten dut ardia gordelekuan sartu zela eta atera zena pertsona ezberdinak direla. Beren eskutan pasa zuen tarreak bere osasun- eta animo-egoeran eragina izan zuen modu erabakigarrian. Berritoren, otsoak gaiztakeriak egiten... Bakean utzi gaitzate, joan daitezela eta utzi diezaitela geratzen diren ardiei beren gordelekuetatik ateratzen, Juan Mari zioen bezala, pertsona asko baino fidagarriagoak baitira.

Asier Erkizia de la Calle

HERNANI ODOL EMAILEAK



Urteko aurreneko zitan ez zuten huts egin odol emaleetako batzuk.

Aurreko urtekoari segida, aurrenekoan

Asteartean izan zuten 2019 urteko aurreneko zita Hernaniko Odol Emaleek, eta 2018ko bide berbera jarraitu dute, hasteko. 45 lagunek eman zuten odola, urtarileko hitzorduan, eta horietatik bakarria izan zen berria, aurrenekoz eman zuena. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

CARLOS ENRIQUE OGANDO IPARRAGIRRE

Joan zinen gu hemen utzita baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.

ZINKO-ENEAKO KOADRILA
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 11n

IRAGARKI MERKEAK

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria guztia prest. Bezero kartera handia eta errentagarritasun frogagarria. Deitu: 656 709 251

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

2019 EUSKAL HERRIKO XI. MUS TXAPELKETA

FINAL NAZIONALA NAFARROAN
LIZARRAN 2019ko MARTXOAREN 16an
ZAZPI HERRIALDEETAKO FINALAK:
2019ko OTSAILAREN 23an

HERNANI
Urtarrilak 18, ostirala
TXINTXUA HOTELA
22:00etan

IZEN EMATEA
688 714 856

DATAK

HERNANI BERRI KANPUSARI TAI 2019ko otsailaren 23an.

EUSKAL HERRIKO FINALA NAZARRIAN Lizarran martxoaren 16an.

OHARRAK: Ezkai Herriko Mus Federazioak txapelketarako garrantzitsuak diren ardiei jarduera eta laguntza eskaintzen du. Garrantzitsuak dira: www.ehmus.eus

SARIAK

TXAPELKETA 3.000€ eta nazarrerako* bidaiak lau laguntza. (*KARRERA diva berriz)

TXAPELKETA ONDOKO Gauri diruak, 1.500€ eta bi laguntza nazarrerako* bidaiak. (*KARRERA diva berriz)

3. BIRRIE SARRAKIA 750€ eta azkeneko egunetako lau laguntza.

*lan partekatu www.ehmus.eus

HERNANIKO SARIAK

BIRRIE SARRAKIA Hotel Txintxua jatebidea 4 laguntzako afaria, 2 botila Rioja Cruza Magnun eta %100ean arabigra den Kafe aparta.

BIGARREN SARRAKIA 2 botila Rioja Cruza Magnun eta %100ean arabigra den Kafe aparta.

KOLABORATZAILAK: **Vigüela, Anabá baraketak eta Cafés Panchito** Partaide guztek botila ardo bana izango dute.